

FRANCISCO DE GOYA

Adiskideen erretratuak: Zapater eta Moratín

Bilboko Arte Eder Museoa



María Teresa Rodríguez Torres

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argazki-kredituak

© Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao:

1., 2., 3., 5., 6. eta 8.-13. ir.

© Museo de Bellas Artes, Zaragoza: 7. ir.

© Museo de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, Madrid: 4. ir.

Argitalpena:

B'06 : *Buletina* = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 2. zenb., 2007, 145.-179. or.

Babeslea:

Caja Duero

Goyaren lanen artean, erretratu bere garaikideei gehien preziatu zuten generoa izan zen. Maisua zen erretratutakoaren aurpegiera leiala irudikatzeko orduan, eta, haragi-koloreen tonuaren zein modelatua bolumenaren bitartez, pertsonaiek paratu ziren lehenengo eguneko freskotasanari eta bizitasunari eutsi ahal izan diete urteen joan-etorrian.

Erretratuen generoa hiru multzo handitan sailkatu dezakegu: senitartekoen erretratuak, adiskideen erretratuak eta enkarguz edo ofizios egindako erretratuak. Azken multzo horretan, zeresan handia zeukan margolariaren ahaleginak, asmatzeko, nabaritasuna eskuratzeko eta dobloi *loratuak* lortzeko orduan. Hori erdietsitakoan eta ospea finkatutakoan, adiskideen erretratuetan bezala, beste faktore bat azaltzen zen beti, hau da, erretratutakoarekiko hurbiltasun edo begikotasun maila, izaeraren benetako disezioa egiten zioten eta.

Sailkapen hori egin ondoren, Goyari dagokionez, beste bat ere egin dezakegu bere prestakuntzako etapa desberdinen arabera, bertan eragin handia zeukalako margolariak bere prozesu ebolutiboaren ondorioz eskuan lortutako trebetasunak. Izan ere, margolariaren azkartasuna, maisutasuna eta baliabideen ekonomia askoz ere handiagoak ziren, harik eta argi-itzalen eskematismora iritsi arte. Hala ere, bizitza osoan zehar, erretratuak egiteko iaioitasun besterenezinari eutsi zion, geroago ikusiko dugun bezala, materialak eta erabiltako pasta-kopurua baino ez zituelako aldatu.

Adiskideen erretratuei dagokienez, Bilboko Arte Eder Museoak bere fondoan artean dauka Goyaren pare bat erretratu zoragarri: Zapaterena eta Moratínena. Inolako zalantzarik gabe, bietatik, Martín Zapater y Clavería (1747-1803) izan zen margolariaren benetako lagun mina [1. ir.]. Adiskidetasun horren ondorioz, Goyak hainbat eta hainbat gutun bidali zizkion Martíni. Asko eta asko gorde egin direnez, iturri ezin hobeak dira artistaren kezka, familia-bizimodua eta lanbide-igoera nolakoak ziren jakiteko. Igoera hori Zapaterrenaren parekoa izan zen, euren arloak desberdinak izan arren.

Gutun batean haren itxura fisikoa aipatzen zuen: «Aita Joaquínen eskolan bezala egongo zara seguruenik». Hori dela eta, Martínen loba zen Francisco Zapaterrek¹ Goyaren eta Zapaterren arteko adiskidetasuna Zaragozako Errukiorren Eskoletako ikasmahaietan sortu zela uste zuen. Jeannine Baticle² kolokan jarri zuen

1 Francisco Zapater y Gómez. *Goya : noticias biográficas*. Zaragoza, 1868, 45. or.

2 Baticle 1995, 30.-31. or.



1. Francisco de Goya (1746-1828)
Martín Zapaterren erretratua, 1797
Olioa mihisean. 83 x 65 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 82/10

teoria hori, eta, egoera argitu nahian, José Luis Onak lan bikaina³ egin zuen. Parrokietako eta Zaragozan doako irakaskuntza eskaintzen zuten kongregazioetako artxiboetan egin du jarraipena, garai hartako ohituraren arabera umeak eskola hurbilenera joaten zirelako inskribatuta zeuden parrokiaren barruan. Azterlan horri esker, bien haurtzaroari eta erkidego haren *modus vivendi*ari buruzko datu baliotsuak lortu ditugu.

Guztiok dakigunez, Goya Fuendetodosen jaio zen 1746ko martxoaren 30ean. Martín urtebete geroago, 1747ko azaroaren 12an, jaio zen Zaragozan, eta Madalena parrokian bataiatu zuten. Onak datu horren arabera azaltzen duenez, Zapaterarrak Puerta Quemada kalean bizi ziren Vidaltarrekin, 1748. urtean eurekin batera inskribatuta zeuden-eta. Laster, etxe horretatik alde egin zuten, 1752ko erregistroan ez delako eurei buruzko aipamenik agertzen.

Zapaterarrak 1757. urtean agertu ziren berriro, Gaspar Lorés gurdigilearen etxebizitzan berralokatuta. Etxea hiriko beste aldean zegoen, San Paulo parrokian, eta, bertan, Eskola Jainkotiarren kongregazioa ere bazegoen.

Onak⁴ adierazten duenez, beti-beti berralokatuta eta artisauen auzoetan agertzen zirenez, agerikoa da jatorri xumeko familia zela. Nolanahi ere, Martínen zoria aldatu egin zen, hamar urte zituela senitarteko aberats batzuek apopilo hartu zutenean. Egoera hori ohikoa zen beheragoko gizarte-mailako senideen artean. Beraz, Francisco Alduy jaunaren etxetzarrera joan zen bizitzen. Kosoan kokatuta zegoen, Sástago kondeen jauregiaren aurrean, San Gil parrokiako eremuaren barruan. Apopilo egotean, ez da harritzekoa bere izena nerabeen izenen artean nahastuta agertzea erregistroetan. Dena dela, bere gizarte-maila aldatu egin zen, adimentsua eta bihotz onekoa zenez, senitarteko aberatsen maitasuna eta konfiantza lortu zituelako; eta haiak hildakoan, euren dirua eta ondasunak.

Bien bitartean, 1747tik 1757ra, Goya Mairutegi Itxiko etxean bizi zen, eta, bertatik hurbil, hiru eskola zeuden: frantziskotarrek zuzendutako San Frantzisko komentua, oinetakodun agustindarren Villanuevako Santo Tomas ikastetxea eta, bere etxearen aurrean, *Hil-hurrenak* izeneko kleriko erregeladunen San Kamilo komentua. Bere anaiaren izena Camilo zenez eta hura ere kleriko erregeladuna zenez, badirudi lehenengo hizkiak San Kamilo komentuan ikasi zituela.

Margolariaren familiaren aztarna 1761. urtera arte galdu zen. 1762. urtean, Goyatarrak Trenkeko *Maldaxora* joan ziren, Kosotik hurbil-hurbil. Bertan, garai hartan hamabost bat urte zeuzkan Zapater bizi zen. Beraz, Goya adiskideak baino urtebete gutxiago zeukan. Sasoi hartan, lehen aldiz topatu ziren parrokia berean, San Gilen, hain zuzen ere. Etorkizuneko margolariak parrokia horretan jaso zuen sendotzaren sakramentua. Parrokia-eremu horretan, jesuiten eskola zegoen Kosoko harriak izeneko lekuan, 1762tik 1766ra Goyaren bizilekua izan zen etxearen albo-alboan.

Datu horien arabera, eskolapioetan barik, jesuitetan elkar ezagutu zuten seguruenik, Goya ez zelako inoiz izan kongregazio horren egoitza zen San Paulo parrokiakoa. Gero, euren adina eta gure antzinako ohiturak kontuan hartuta, San Gilen bertan, binaka eta naturaltasun osoz, «harkoskokadetan» parte hartuko zuten beste parrokia batzuetako mutilen aurka.

Bi adiskideak jatorri xumekoak ziren, eta antzeko bilakaera izan zuten⁵. Zapaterrek merkataritzari esker lortu zuen protagonismoa gizartean⁶, bere izeba Joaquina Alduyren herentziaren babespean. Goyak, ordea, «bakarrik» egin zuen aurrera bere pintzelaren laguntzaz. Hala ere, Francisco Bayeu koinatuak ere eman zion «bultzadaxoren»⁷ bat.

3 Ona González 1997, 56.-61. or.

4 Ibid., 58. or.

5 Ibid., 61. or.

6 Ansón 1992.

7 Arias Anglés 1998.

Adiskidetasuna elkarrekiko miresmenean eta antzeko gustuetan oinarrituta zegoen, biek oso gogoko zituzte-lako ehiza, zezenak eta musika. Izan ere, biek bereizi gabe ezizentzat hartutako *Lizano*⁸ izenak eta *lizanero eta lizarrón* aldagaiek lotura estua daukate txandakako jota barregarrien aurrekariak izandako «erronkako kantuetarako» zaletasunarekin.

Zapaterrek Goyaren margolan eta estanpen bilduma zeukan, eta Francisco Zapater y Gómez lobarri utzi zizkion herentzian. Goyaren eta bere koinatuen arteko gutunei esker, badago euretako batzuk non dauden jakiterik.

Goya Madrilerantz⁹ joan zenetik denbora gutxira, lehenengo aipamena aurkitzen dugu Frai Manuel Bayeuk¹⁰ Zapaterri 1775eko otsailaren 15ean idatzitako gutunean: «Oraintxe bertan, zuri Bertute Kardinalak irudikatzen dituzten 4 diseinu oparitzea bururatu zait, zure logelan nire Goyaren margolan handien artean ikusgai jarri ditzazun». Aparteko oharrean, honako hauxe zehazten zuen: «Lau koadrotxoak neuk egin ditut, eta freskotara margotuta daude elizako laranja erdian». Datari erreparatuta, Frai Manuelek aipatutako koadroak Zaragozan margotu behar izan zituzten.

Pertsona beraren datarik gabeko beste gutun batean¹¹, Goyaren zirriborroa aipatzen zen: «... Jainkoak aukera ematen didanean, gustura ikusiko dut Goyaren zirriborroa. Izan ere, joan zenetik, ez dut bere lanik ikusi. Ez dit gustu hori eman nahi izan, antza [...] Aitek miresmenez irakurri dute Olabideren autoa». Olavide¹² aipatzen duenez, badakigu abenduan eta 1778ko abenduaren 8aren¹³ ostean idatzi zuen.

Seguruenik, Goyak 1778ko abenduaren 7ko gutunean Zapaterri eskaintzen dion zirriborro bera izango da¹⁴: «Sabatinik zuretzat gordeta neuzkan zirriborro ederrak kendu dizkit, eta ezer gabe utzi nau: Errondako dantzal-diarena eta San Frantzisko Handiaren margolaneko atzealdearena. Nahi izanez gero, txokotxoren batean jarri ahal izango duzu». Zapaterrek zalantza estilistikoren bat eduki behar izan zuen, Goyak honako hauxe idatzi zuelako 1779ko urtarrilaren 9an¹⁵: «Zuk daukazun zirriborrotxoan, asmakizuna Franciscorena [Bayeurena] da; eta egikaritzea, nirea. Den-denak bost axola, ez du merezi nirea edo bere izatea, ez du baliorik». Hori dela eta, egiaztatu egiten da ospedun margolariak edo euren buruarenganako segurtasuna duten margolariak ez direla inoren lanez jabetzen edo ez dutela lanon gaineko erantzukizunik hartzen.

Hurrengo urteetan ere, zirriborroak oparitu zizkion. Horiek horrela, honako hauxe azaltzen da 1781eko abuztuaren 3ko gutunean¹⁶: «Zirriborrotxoetako bat zuretzat izango da». Bi urte geroago, 1783ko urtarrilaren 15ean¹⁷, San Frantzisko Handiaren zirriborroetako bat eman zion: «Era berean, San Frantziskoren koadroaren zirriborroetako bat ere bidaliko dizut. Dena dela, oso kontuan hartu zirriborro-zirriborroa dela eta originala ez dagoela lar ondo, baina nolabaiteko itxura hartu ahal izango diozu».

Bere lobaren bitartez jakin dugunez, Cadizko Santa Koba elizarako *Azken afariko* zirriborroa eta Zaragozako Torreroako San Fernando elizarako hirurak¹⁸ zeuden bere bilduman. Izan ere, bere lanen lekuko bakarrak dira, Independentziaren Gerran frantsesek eliza suntsitu zutelako eta erbestera bidean Jovellanos¹⁹ hainbeste miretsitako aldareko hiru margolanak galdu zirelako.

8 Lizanero terminoaren esanahiari dagokionez, Rodríguez Torres 1995, 64.-68. or.

9 Goya 1775eko urtarrilaren 3an irten zen Zaragozatik eta 10ean iritsi zen Madrilerara, bere *Cuaderno italiano* lanean azaltzen den bezala (faks. ed., Madril, 1994, 47. or. [a]).

10 Bayeu y Subías 1996.

11 Ibid., 77. or., 27. gutuna.

12 Epaia 1778koa da. Sahagúneko komentu batean bete beharreko zortzi urteko kartzela-zigorra ezarri zioten.

13 Bayeu y Subías 1996, 75. or., 26. gutuna.

14 Goya 1982, 48. or., 7. gutuna.

15 Ibid., 49. or., 8. gutuna.

16 Ibid., 66. or., 22. gutuna.

17 Ibid., 93. or., 38. gutuna.

18 Ansón 1992, 216. or.

19 Jovellanosen egunkaria, 1801eko apirilaren 7an. Jovellanos 1988.



2. Francisco de Goya (1746-1828)
Martín Zapaterren erretratu, 1797
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Euskarria

Zapaterrek hainbat zirriborro bazituen, argi dago genero hori zuela gustuko. Hala ere, ez zen bakarra, lan erlijiosoak egiteko ere eskatu ziolako –Karmengo Andre Maria bat eta San Kristobal bat, besteak beste–, Goyak gutunetan aipatzen duen bezala.

Era berean, adiskidetasuna eta trebetasuna kontuan hartuta agerikoa denez, haren erretratu bat baino gehiago egin zituen. Euretako bat 1790ean margotu zuen, Hagako Cramer bilduman zegoen antzina. Goyak gutun batean aipatzen zuen²⁰: «Ez egin iseka sudurluze halakoa. Zure margolanerako mihisea prestatzeko eskatuko dut, eta, egin arte, ez naiz biziko». Bestetik, honako hauxe zioen 1789ko abuztuaren 5eko beste gutun bateko paragrafoan: «Ez bazatoz, ez dizut erretraturik egingo, eta oraingoan ez litzateke aurreragokoan bezala gertatuko». Beraz, badirudi beste erretratu bat egon zela²¹.

Hala ere, inolako zalantzarik gabe, ale onena Bilboko Arte Eder Museokoa da, eta horixe bera dugu aztergai. Zaragozako Francisco Zapater jaunaren bildumatik dator, eta, bertatik, Zaragozako Portabella litografoaren bildumara joan zen. 1906an, Parisko Paul. Durand-Rueli saldu zioten, Ramón de la Sota y Aburto jaunak erosi zuen eta, 1980. urtean, museoari oinordetzan utzi zioten.

Eskainita, sinatuta eta datatuta dago: «Goyaren partez, Martín Zapater adiskidearentzat, 1797». Gaur egungo formatua obaloa izan arren, ez zen beti horrela izan. Desparmetek²² bere testigantza eskaini zigun 1903. urtean. Autore horren arabera, 1903an margolana Zaragozako Portabella litografoaren etxean ikusi zuenean, erretratu obalo batean inskribatuta zegoen oihal angeluzuzenaren gainean, eta 110 x 90 cm neur-tzen zuen. Fitxan bertan, ohar originala dago berreginda, eta, horren arabera, erretratu hori txarto zegoen, krakeladura ugari eta altxatutako zatiak edo ezkatakituelako ertzetan. Erdian, bi zaharberrikuntza zaharren markak agertzen ziren. Ohar horretan bertan adierazten zuenez, oihala obaloaren neurrietara murriztu zuten geroago: 83 x 64 cm. Seguruenik, Durand-Ruel etxean ikusi zuen berriro eta bera izango zen hondatutako ertzak kenduko zizkion «saneatzeko» asmoz, bastidorea [2. ir.] lan frantsesa da-eta. Bi neurriek, ebaki aurrekoak eta ostekoak, egiazdatzen dute albistea benetakoa dela.

20 Goya 1982, 195.-196. or., 113. gutuna.

21 Filadelfiako M. Widenerren bilduman, Zapaterren erretratu ezezaguna aipatzen da.

22 Desparmet Fitz-Gerald 1928-1950, 376. zenb., 2. aleko testua, 94. or.: «Portrait de Martin Zapater y Claveria/ Peint en 1797/ Toile: Hr 1,10 x Lr 0,90/ Il est représenté de face, grandeur naturelle, vu à mi-corps, dans un ovale peint sur la toile rectangulaire [...] / N.B. – Ce portrait était en très mauvais état lorsque je l’ai vu, en 1903, chez Don Portabella, lithographe à Zaragoza. On remarquait au bord de la toile de nombreuses craquelures et des parties écaillées. La partie centrale portait les traces de deux restaurations déjà anciennes. La toile fut réduite plus tard (Hr 0,83 x Lr 0,64); dimensions de l’ovale/ Dans les bas de l’ovale on lit: *Goya a su Amigo Marr Zapater 1797*».



© Babestutako materiala

3. Francisco de Goya (1746-1828)
Moratín poetaren erretratua, 1824
Olioa mihisean. 60 x 49,5 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 69/101

Ansón Navarrok²³ zalantzan jartzen du, Francisco Zapaterren etxean ikusi zuen Viñaza kondeak koadroa, obaloa zela adierazi zuelako 1887an egindako argitalpenean. Nolanahi ere, Fernando VII.aren alaba zen Maria Luisa infanteak jasotako eta San Telmo jauregian gordetako *Karlos IV.aren familia* margolaneko lau zirriborroak ere obaloak zirela aipatzen da. Hala ere, bat bera ere ez zen obaloa, markoa bera zelako obaloa. Era berean, halaxe agertzen da 1925ean Laurent Mayer²⁴ argazkilari frantsesak egindako argazkien oinetan, «marko angeluzuzenean jarritako obaloak» direla dio-eta.

Gutun barregarri batek²⁵ Bilboko erretratuarekin dauka zerikusia, eta amaierako marrazkiak ez luke alkoholemiaaren proba gaudituko, parte-hartzaileek onartzen duten bezala, denak mozkorrik. Beraz, herri-kantua egiztatzen da:

Cuando un pobre se emborracha	Txiroak aberatsekin batera
Y un rico en su compañía,	mozkortzen direnean,
La del pobre es borrachera,	txiroena mozkorra da;
La del rico es alegría	eta aberatsena, alaitasuna.

Goyak gutuna idatzi ez zuen arren, margolariak bertan parte hartu zuen, bere izena sinaduran agertzen delako. Izan ere, oso izen bitxia erabili zuen: «Francisco zure lorietakoa edo de Goya». «Zure lorietako» hori erretratua izan zelako agertzen da. Gaur egun ere, izenondo hori erabiltzen da norbaiti argazkiak ateratzen dizkiotenean. Ez dauka datarik, baina 1797ko abenduan idatzi zen, Zapater²⁶ loteria-saridunaren izenean ospatzen ari zirela aipatzen zutelako –Zapaterrek berak janaria eta edaria bidali zizkien saria ospatzeko– eta Gabonetako zorionak ematen zituztelako:

Martín Zapater jaun boteretsua bezain eskuzabala.

Jaun agurgarri hori, gure mirespen eta begirune guztia zuretzat. Zure eskuzabaltasunagatik hunkituta. Eskerrik asko zure zorte ona eta zoriontasuna ospatzeko bidali dizkiguzun elikagai preziatuengatik, ardo finengatik eta pattar leunengatik. Eskerrak eman behar dizkizugu (onetsi eta aitortu egiten dugun bezala, gure betebeharra delako) zure eskuzabaltasun eta dotoretasunagatik: nork esan zezakeen zu bezalako zeken batek halakorik egingo zuenik. Zure adeitasunak harri eta zur utzi gaitu, beti denetarik ospatzeko prest bagaude ere. Horrez gain, zure zorte ona txalokatu nahi dugu. Horiek horrela, ikaragarri asaldatu garenez, gure alaitasuna neurrigabea izan da, eta zelako topa egin dugun!, zenbat botila edan ditugun!, zelako kafea edan dugun!, zelako botilak eta kopak ibili dira airean! Ez dago beste esatekorik, baina etxeko kristala berritu egin da eta Gora Zapater!, hori bai dela laguna!, gizon bikaina! besterik ez entzuten: gora eta gora. Loteria gehiago tokatzen bazaizkio, hobe, bere benetako lagunek gustura ospatuko dutelako. Era berean, eskerrak emango dizkiote, bere ontasunak hain gizon duinekin partekatzen dituelako. Gure saioa zoriontsu eta alai amaitzen dugu, baina ezusteko galanta jasotzen dugu halako batean! Autoa dakarren zerbitzaria, Simon, eta gonbidatu gaituen jaunaren beraren mezua. Hiribilduaren gaineko balkoia prestatu digu, dibertitu gaitezen eta ospeak eragindako nekeetatik aldendu gaitezen. Egundandi, egun zoriontsu honetan, hainbat zorion, hainbat zorte on eta hainbat eskuzabaltasun txalokatu dira: zuk zeuk ere berdin egingo duzu. Nola txalokatuko duzun! Nola ospatuko duzun! Nola aitortuko duzu zure benetako lagunak direla eta zure zoriontasuna besterik ez dutela nahi. Hona hemen zure esker oneko lagun eta zerbitzari abegitsuok. Zure eskua musukatzen dugu.

Damek zerbitzatuak, ez kaikuek.

Eguberri on

23 Ansón 1992, 216. or.

24 Mayer 1925.

25 Goya 1982, 228. or., 136. gutuna.

26 1.500 eta 6.000 errealeko bi sorta tokatu zitzaizkion Errege Jesapeneko zozketetan, 1797ko azaroaren amaieran eta abenduaren hasieran.

Pedro de Garro
Zure lorietako Francisco edo de Goya
Eguberri on, Julian Baquero
Andre Maria putetako azken kidea. Eguberri on: Musiuko harena
Firmayre. Fede-emanetz [notarioen gurutzea bezala]
Miguel Escorial
Denak mozkorrik
Gorritxo
Eguberri on, bene-benetan, aragoar eskuzabala! Zure lagun mina, Francisco Diz
Eguberri on, Josef Zamora
Eguberri on eta osasuna, lan errukior hau sortzeko. Antonio Ferrer
Eguberri on, Nicolasa Lázaro, autoko gurpilaren pareko tortadarekin
Dengila pastel gozoa, bikaina, benetan
Josefa Bayeu.

Leandro Fernández de Moratín-en erretratua (1760-1828) [3. ir.] Madrileko Silvela markesen bildumatik dator. Idazleak bere ondasun guztiekin batera²⁷ utzi zion bere lagun mina zen Manuel Silvela jaunaren Victoria Silvela ilobari. Testamentuan adierazten denez, Goyak «Bordelen egin zuen». Museoak 1932. urtean erosi zuen.

Denok dakigunez, Goya 1824ko ekainean iritsi zen hiri horretara, baina hiru egunez baino ez zen bertan egon, Parisera zihoalako irailera arte. Hilabete horren erdialdean, semearen aitagarrebarekin, Martín Miguel de Goicoechearekin, Manuela alabarekin eta alabaren senarrarekin, José Francisco Muguirekin, itzuli zen, eta behin betiko finkatu zen Bordelen. Izan ere, lau urte geroago, 1828an, hil zen bertan.

Erretratuak datarik ez duen arren, Moratín-en eta Juan Antonio Melón abadearen arteko gutunek nolabaiteko ironiaz eskaintzen dizkigute erretratua 1824ko udazkenekoa dela jakiteko datu zehatzak. Lehenengo aipamena irailaren 20ko gutunean agertzen da²⁸: «Goya, emaztea eta seme-alabak altzariz hornitutako etxean eta leku onean daude. Nire ustez, oso eroso igaroko du negua. Erretratua egin nahi dit. Beraz, ederra omen naiz, pintzel trebe horiek nire kopiak biderkatu nahi badituzte».

Handik gutxira hasi behar izan zen, azkar egindako margolana dela eta brotxakadaz egindakoa dela dirudien arren, ondo pentsatutako erretratua delako eta hainbat aldaketa egin zituelako, testuan zehar ikusiko dugun bezala. Hori dela eta, Moratín behin baino gehiagotan paratu beharko zen. Beharbada deserosotasun hori zen irailaren 30eko gutun batean²⁹ azaldutako kexaren jatorria: «Goya honek zoratuta nauka, eta ez nau bakean uzten».

Moratín-en gutun-liburuan, Goyari buruzko hurrengo albistea ez da urriaren 23ko gutunera arte azaltzen³⁰: «Goya etorri da Leocadia andrearekin. Euren artean ez dago inolako harmoniarik». Arazo horri erreparatzeko, argi dago harremana etengabea eta intimoa izan behar zela. Ikustaldi bakar batean ez dago halakorik antzematerik. Seguruenik, margolana egiteko derrigorrezko saioetan konturatuko zen horretaz, handik aurrera Goyari buruzko albistek lantzean behin baino ez zirelako agertzen. Izan ere, abenduaren 22ra arte ez dago beste albisterik, eta hurrengo ez da 1825eko martxora arte agertuko.

27 Pastrana etxea izan ezik, Madrileko ume abandonatuaren etxeari utzi ziolako dohaintzan; eta eskuizkribuak izan ezik, berarekin Bordelen bizi zen Manuel Silvelari utzi zizkiolako.

28 Fernández de Moratín 1973, 594. or, 307. gutuna.

29 Ibid., 595.-596. or., 308. gutuna.

30 Ibid., 596. or., 309. gutuna.



4. Francisco de Goya (1746-1828)
Leandro Fernández de Moratín en retrato, 1799
Olioa mihisean. 73 x 56 cm
San Fernandoko Arte Ederren Erret Akademia, Madril
Inb. zenb. 671

Erretratu intimoa bezain informala da. Moratín jesarrita dago, bere zeregin literarioetan lanean, eta, soinean etxeko arropa duela kontuan hartuta –oihalezko txabusina arrea eta ia-ia beltzak diren praka urdin ilunak³¹–, olerkariaren etxean margotuta edo marraztuta dagoela esan liteke.

Agerikoa da Goyak Moratínen itxura hobetu zuela, ez zituelako haurtzaroan³² izandako nafarreraren ondorioz aurpegiaren zeuzkan marka itxuragabeak eta sakonak irudikatu. Antza denez, horrexegatik zen hain lotsorra eta uzkurra³³. Sudurraren alboan pintura objektu zurrunaz –pintzelaren kirtenez, seguruenik– herrestan eramanda egindako trazu ebakiek bakarrik izan daitezke aztarna horien adierazgarri. Estetika-ebakuntza hori are nabariagoa izan zen lehenengo erretratuan. San Fernandoko Arte Ederretako Errege Akademian [4.ir.] dago, eta ale bitxia da Goyaren lanen artean, pintzel-markarik eta izurrik ez duelako. Aurpegia hain leun dagoenez –trapua pasa izango balitz bezala–, Mengsek egindako lana dela esan liteke, euren arteko aldeak kontuan hartuta, jakina. Moratínek margolan hori aipatu zuen bere egunkarian, 1799ko uztailaren 16an, hain zuzen ere: «*Goyaren etxera, erretratu*»³⁴. Modelo hau akademiari utzi zion, eta 1829ko urtarrilaren 21ean sartu zen bilduman³⁵.

Bilboko Museoko Moratín «edertzeko prozesua» orokorra da, beheko ezpaina erorita egon arren edo kokospetxoa eduki arren, neurritz egiten duelako, ez delako margolariak 1815eko autorretratuetan egindakoa bezain nabaria. Hori dela eta, ez dakigu ile urdinik gabeko adats iluna berezkoa den edo «hobekuntza» den. Bertan, gainera, ukitu gorri batzuek baino ez dute beltzaren monotonia hausten.

31 Itxurari erreparatuta, bazirudien pigmentu beltza zela, mikroskopia optikoaren bidez begiratuta ere bai. Nolanahi ere, mikroskopia elektronikoaren bitartez lortutako espektroak argi eta garbi adierazi zuen burdin eta aluminio kopurua handia dela eta, horren ondorioz, Prusia urdina zegoela. Laginaren xafra mehe bati esker, urdin horren partikula handiak behatu ahal izan dira.

32 Andioc 1998.

33 Bere biografian aitortu zuen bezala, bere aurpegiaren desitxurapenaren ondorioz ezaugarri bereizgarria geratu zitzaion bizitza osorako: «Nire iritzien segurtasuna desagertu egin zen, eta, ondoren, erratzeko beldurrak harrapatu egin ninduen, isila eta hitsa egin nintzen. Etxean, senideen artean, alaia bezain apala banintzen ere, oso mina ez zen norbait agertzean, lotsatu egiten nintzen eta ez nintzen batere soziala».

34 Fernández de Moratín 1968.

35 Piquero/González de Amézúa 1996, 671. zenb.; Julián Gállego Serrano in Zaragoza 1996, 186. or.

Pintzela segurtasunez eta iaioitasunez erabiltzen duenez, ez dago margolariak Ferrerri idatzitako gutunean azaldutako kexa antzematerik: «ez ikusmenik, ez pulsurik, [...] den-dena daukat faltan eta borondatea baino ez daukat sobera»³⁶.

Erretratuen teknika

Moratínen eta Zapaterren erretratuak eredu orokorren arabera eginda daude, hasiera batean horrela ez dirudien arren. Teknika horren arabera, buruaren marrazki landu-landua egiten da prestakinean, eta itzalezadura ugari ditu. Horrez gain, haragi-koloreko geruza fina ematen da, eta marrazkiaren zati bat uzten da estali gabe. Ondoren, pasta nahikoaz sendotzen dira argi gehien duten gunek. Prozesua ondo ulertzeko asmoz, bi margolanak erkatuko ditugu. Kanpoko ohiko behaketaren bidez alderatu arren, gaur egun ezinbestekoak diren metodo fisikokimikoak erabiliko ditugu.

Zapaterren erretratuan [5. ir.], marrazkiko trazu grisak aurpegiaren eskuinaldean azaleratzen dira, eta haragi-koloreak sudurreko itzalezadura gardentzen du. Moratínen erretratuan [6. ir.], ordea, material lodiagoa eta ilunagoa erabiltzen du marrazkia egiteko berrikuntza gisa, eta, bere itxura eta erradiazio infragorriaren xurgapena kontuan hartuta, badirudi ikatza dela.

Lehorketaren ondorioz berez mehea den pintura-geruza fintzean, Goyak hasiera batean nahi izango zuen baino gehiago gardentzen da marrazki beltz nabarmena. Izan ere, horixe bera gertatu zen Zaragozako Arte Eder Museoa dagoen *Mantelinadun andrearen erretratu* margolanean, fenomeno horren ondorioz bibote itxia «hazi» zaiolako [7. ir.]. Goyak prozedura bera erabili zuen 1820an Tiburcio Pérez arkitektoari (bere lagun hurbilari) egindako eta New Yorkeko Metropolitan Museum-en dagoen erretratuan. 1824an margolaria Frantziara joan zenean, arkitektoaren etxean eta haren zaintzapean geratu zen Rosarito Weiss txikia.

Bestetik, erretratutakoaren adina ere hartu behar dugu kontuan. Zapaterri dagokionez, masailalbo-hezurretako eta aurpegiko orban gorrixka zabalak bere mardultasunaren eta gorritasunaren adierazgarri dira. Moratínen erretratuan, ostera, tonua bera uniformeagoa da, azal helduaren itxura itzali bezain argiantzaren adierazgarri.

Azken ezaugarri hori ez da beti betetzen, salbuespenak daudelako, aurpegiko larruazal gorridun pertsonaien erretratu egiten denean, batez ere. Bertan, hain zuzen ere, gorria biziagotu egiten da urteen joan-etorrian, zahartutako azala gardenagoa delako eta, horren ondorioz, kapilaritatea nabarmentzen delako.

Begien pintaketa xehetasun bereizgarria da [8. ir.]. Badirudi *kohlez* makillatzen dituela. Betileak izango balira bezala, marra beltza egiten die inguruan. Beheko aldean fina den arren, are lodiagoa da goiko betazalean. Horiek horrela, almendra osatzen da, eta begi-atal guztiak txertatzen dira bertan. Marra horrek, ordea, ez ditu lekuratzen, nabarmendu egiten ditu, ondoren erantsi delako. Modu sistematikoan zertxobait handitzen duen argi-puntua agertzen da begi-ninietan, eta horixe bera da inguruko beste margolari batzuen, jarraitzaileek eta epigonoen aldean daukan bereizgarritasuna.

Esklerotikaren distira konpontzeko, pintzeladaxo zuriak ematen ditu begi-niniaren inguruan. Bere azken garaian, begiaren globoko pintzeladon orde, pintura-zitada eskasak ematen ditu. Hala ere, efektu bera lortzen da urrunetik, hurbiletik lausotuta egon arren, Moratínen erretratuan gertatzen den bezala.

Ezpainak banatzeko pintzelada beltza are finagoa da bere erretratu goiztiarretan azkenetan baino. Bertan, ikatz-ziria erabiltzen duenez, banaketa zabalagoa da, eta sakontasun-sentsazioa sortzen da, Moratínen erretratuan antzematen den bezala.

36 Goya 1981, 389.-390. or., 273. gutuna.



5. Francisco de Goya (1746-1828)
Martín Zapaterren erretratua, 1797
Bilboko Arte Eder Museoa
Xehetasuna



6. Francisco de Goya (1746-1828)
Moratín poetaren erretratua, 1824
Bilboko Arte Eder Museoa
Xehetasuna



7. Francisco de Goya (1746-1828)
Mantelinadun emakume baten erretratua
Olioa mihisean
Zaragozako Arte Ederren Museoa
Inb. zenb. 91.13.1



8. Francisco de Goya (1746-1828)
Martín Zapaterren erretratua, 1797
Bilboko Arte Eder Museoa
Xehetasuna

Era berean, bi erretratuetan trazu luze etengabea agertzen da, bekokitik bertatik aurpegiaren eskuinalde osoa nabarmentzeko, lokiaren kurbaduratik kokotseraino, belzutako erretratuetan antzematerik ez badago ere.

Lakrimaleko gorri-ukituek, goiko betazaletako zein masailalbo-hezurretako arrosa-ukituek eta sudurrean bertan zubitik kartilagora doan arrosa-koloreko marra meheak erretratuaren bizitasuna alaitu eta nabarmendu egiten dute.

Amaitzeko, berun-zuri ugariak orban nabaria egiten du bekokian, argitasuna emateko. Bekainen ingurutik doa, eta, puntaz barruratzen da betarteko zubian. Begi biluziz antzemandako tankera esne-itxurakoa da zenbait gunetan, diluitzaile (agoarras) lar erabili izan balu bezala. Ukitu txikiak ematen ditu sudur-puntan eta giharretan, irribarrean ezpainak altxatzeko, eta, Zapaterrena iradokita baino ez badago ere, Goyak behar den moduan irudikatzen du.

Erradiografiak oso erabilgarriak dira, azaldu duguna ikusteko eta argi ikusgai antzematen ez diren alderdiak ezagutzeko. Horiek horrela, begien azpiko bi orban zuriei erreparatuta, badirudi hasiera batean beheargoko posizio batean zeudela.

Zapaterren erretratuaren dokumentu erradiografikoan [9. ir.], argi eta garbi azaltzen da bekokiko argi-orbana bizi-bizia dela, pintzelaz arrasteko pasta-grafia sortzen duela eta beste erretratu batzuetan aurkitutakoa bezalakoa dela. Begi biluziz, gainera, nahikoa deigarria da *Jantzitako majaren* bekokian. Izan ere, erradiografiak ageri-agerian uzten du ezaugarri hori. Era berean, txalina ere bada beste argitasun-puntu nabaria, hasierako ideia arabera txikixeagoa izan arren, bai eta txalekoa bera ere. Bertan, gainera, erabilitako pintzel-mota zein den jakin daiteke, pastaren arrasteak utzitako aztarna horizontalei erreparatuta.

Ilea xehetasun bitxia da, kanpoko itxura beltza delako. Nolanahi ere, erradiografiak egiaztatu egiten du pigmentuen nahasketan berun-zuri asko erabili duela argitasun handiko abiapuntuan, batez ere, eta eskuinaldean. Bertan, hain zuzen ere, argia nabarmentzen da, ezkerrean ia-ia kontraste erradiografikorik ez dagoen bitartean.

Moratínen erretratuari dagokionez, irudi erradiografikoa [10. ir.] motelduta dago, prestakinean berun-zuri ugari erabiltzen delako eta pigmentu horrek xurgapen-maila handia duelako oliotan. Hori dela eta, atzealde zurixka uniforme agertzen da, eta ez dago begi biluziz ikusten diren trazu ugariak antzematerik, gune ilun batzuetan, batez ere. Ulegarria denez, xurgapen erradiografiko handieneko puntuak alkandoraren lepoan eta aurpegian pilatzen dira. Aurpegian, orban luzeak bekokiko eta lokiko argitasuna nabarmentzen du, eta enpatea are handiagoa da masailalbo-hezurrean, sudurrean eta ezpain-ertzean. Sudur-puntako argi-ukitua biribila da ia-ia, eta pintura-tanta bat erortzen uzten duen pintzel-kolpe zehatza iradokitzen du. Hain adierazgarriak ez diren beste pintzelada batzuek nostrilean eta beheko ezpainean argi-intentsitate gutxi duten guneak modelatzen dituzte.

Aurpegiaren azpian, beste begitarte batzuk nabarmentzen dira sorkuntza-fase aurreratuan, eta euren azken orientazioan ez datoz bat. Hasiera batean, irudia albora begira zegoen, eta eskuineko begia beheago eta ezkererantz zeukan. Oraingo begiak ez dauka horrenbesteko irudikapen erradiografikorik, beheko marra eta lehenengoko betazalaren argia bat datozelako. Bi konposizioen artean, estaldura-geruza egon behar da, partziala izan arren, eta behekoa ezkutatu behar du. Horiek horrela, Goyak inolako eragozpenik gabe marraztu ahal izan zuen aurpegi berria. Urteen joan-etorrian, marrazkia gainazalean antzematen da, azaleratu egin da. Albora begirako begia, ordea, ezkutuan dago. Hala ere, geruza hori egongo ez balitz, azaleratu egin zen inolako zalantzarik gabe. Aurpegiaren orientazioa aldatu egin denez, irudi erradiografikoa konplikatua da, enpasteak gainjartzean aurpegiaren eskuinaldea nabarmentzen delako, eta bere argitasuna beste gune batzuetakoa baino nabariagoa da.



9. Francisco de Goya (1746-1828)
Martín Zapaterren erretratu, 1797
Bilboko Arte Eder Museoa
Erradiografia. Xehetasuna



10. Francisco de Goya (1746-1828)
Moratín poetaren erretratu, 1824
Bilboko Arte Eder Museoa
Erradiografia. Xehetasuna

Opakotasun horren ondorioz sortutako irudia oso kontrastatua da, eta, bertan, itzalen gardentasuna nabarmendu egiten da, aurpegiaren ezkerrean gertatzen den bezala, bertan betazalaren erreferentzia txikiaren bidez dakigulako non dagoen begia. Alde horretako irudi erradiografikoa desagertu egiten da, haragi-koloraren geruza fin-fina eman delako. Izan ere, atzealdean zuzenean oinarritutako itzalgunea da, eta ez dator bat beheko konposizioarekin.

Goiko ezpainean ere ez dago irudikapenik. Laka gorriko pintzeladaz eginda dago, eta margolariak trazu beltza marraztu du beheko ezpainen bereizteko. Bi materialak X izpien aurrean oso iragazkorak direnez, erabat gardenak dira. Negatiboan lekurtzen dira, beheko ezpaina eta ezpainaren goiko alde lodiagoak direlako. Enpatea ez da hain trinkoa, eta itxura likidoa dauka, aglutinatzaile lar edukiko balu bezala. Lehenengo sudurraren siluetaren zati bat estaltzen du.

Aurpegiak gainjarrita daudenez eta euskarriaren mugimenduak ohikoak direnez, krakeladurak handiak dira, aurpegiaren itxura belzkara are gehiago nabarmentzen dute eta badirudi narriatuta dagoela.

Zehaztu gabeko ile-mototsaren gainean, belarria nabaritzen da, eta, hain makur dagoenez, burua erdiko posizioa lortzeko biratuko bagenu, haizeak bultzatzen duela esan liteke. Zorionez, sentsazio hori margolana begiratzean desagertzen da, belarrondoko ileak zati bat ezkututzen duelako, eta, horren ondorioz, irudia orekatzen duelako.

Albora begira zegoen burua hiru laurdenera aldatzean, alkandoraren jatorrizko lepoaren zati bat, makurrena, Moratínin kokospe-lepoa da, eta beste zati bat txabusinaren lepoak estali du (bertan zehar gardentzen da). Behin betiko bertsioan, puntara eta txabusinaren lepoaren inguruan ageri den marra estura murriztu da bere ikuspegia. Olerkariaren aurpegian azaltzen diren marra zuri diagonalak antzinako lepoaren aztarna estali gabeak dira.

Kontraste erradiologikorik ez daukan gorputza marra zuri leunek mugatzen dute. Eskuinaldean, marra bikoitza bolumen-murrizketaren adierazgarri da. Zuzenketa hori begi biluziz ere antzematen denez, badago ezkererantz biratuago dagoen gorputzaren irudia berregiterik. Txabusinan, lodiera txikiko orban zuriak azaltzen dira, eta argiak oihalaren gainean daukan eraginaren adierazgarri dira, tolesduren erliebea zehaztu gabe egon arren. Argazkilaritzari begira iluna den gunea dago Moratínen bularrean, eta pintura-falta edo abrasioa izan liteke. Mahai gainean dagoen eskuak idazteko lumari heltzen dio, antza. Luma hori xurgapen erradiografiko handiagoko marra diagonalak nabarmentzen du, eta hatz erakuslearen zein hatz lodiaren artean dago kokatuta. Osagai hori kentzean, Goyak erpurua estali du eta hatz erakuslea tolestu du. Era berean, paperezko orrien profila zuzendu du, eta euren ertzetako bat mahai-bazterrean tolesten da. Halaxe adierazten dute mahaiko trazuek. Bertan, gainera, brotxak utzitako aztarnen makurdura ez da egurraren zainena bezalakoa eta liburuaren ertza dakarkigu gogora.

Kolorea eta prestaketa

Pintura-geruzaren mehetasuna Goyaren ezaugarri bereizgarria da, eta bi erretratuetan agertzen da. Hala ere, badago alderik, prestakina desberdina delako. Horrela, bada, Zapaterren erretratuan [11. ir.], bere ohikoena erabiltzen du, hau da, animalia-kolaren³⁸ geruzaren gainean emandako lodiera berdineko eta 181 μm -ko³⁷ batez besteko lodierako geruza bikoitza. Behekoa laranja-gorria da, eta bere osagai nagusia lur gorria da. Goikoa, ordea, horia da, eta, bertan, okre horia eta berunaren oinarritzko karbonatoa nahasten dira erdifyn. Prestakin hori Torrero Mendiko San Fernando elizako zirriborroetan, *Karlos IV.aren familia* margolanaren zirriborroetan eta margolariak egindako beste erretratu batzuen legioan agertzen da.

Moratínen erretratuan, erabat desberdina da. Arauaren arabera, euskarria egokituta dago. Horretarako, animalia-kolaren geruza bat eman da, eta, gainetik, kolore zein lodiera desberdineko prestakin bikoitza eman da. Behekoa horixka da, laranja-koloreko tindagai arina dauka eta bere gehieneko neurria 285 μm -koa da. Berunaren oinarritzko karbonatoa eta lurak³⁹ ditu osagai, eta, euren artean, okre horia, hematitedun lur gorria eta kuartzoa daude. Hiru eskualdi eman dira, eta lehenengoan zein hirugarrenean dago berunaren oinarritzko karbonato gehien. Goikoa, hau da, inprimazioa, berunaren oinarritzko karbonatoaren geruza zuri fina da, eta bere lodiera ez da 35 μm baino handiagoa. Harrigarria da zenbat kuartzo edo harea garau dauden lehenengo geruzan [12. ir.]. Gainera, ezin da lurren berezko laguntzailea den silizea izan, batera ehotzean gainerako osagaien antzeko partikula-tamaina izango lukeelako. Karga hori gurata erantsi denez, toki-inprimazioaren adierazgarri da, eta oso arrunta da Bordeleko lur hareatsuetan. Hain zuzen ere, Meriméeek berak zehatz-mehatz azaltzen ditu prestakin frantsesak edo paristarrak, behintzat. Bi edo hiru geruzakoak dira, eta berunaren oinarritzko karbonatoa da euren osagai bakarra⁴⁰.


Gainazaleko pikor bizi-biziak Goyaren lan berantiar gehienetan agertzen da, baina ez da prestakineko kuartzoaren ondorioz sortzen, ondo baino hobeto uztartuta dagoelako. Izan ere, aglutinatzaileak, linazi-olioak, lehorgailu moduan erantsitako litargiioarekin edo minioarekin erreakzioa egitean eratutako metalezko xaboiak agertzean sortzen dira pikorrok.

37 Lodierak neurtzeko unitatea mikrometroetan adierazten da (1 μm = 0,001 mm).


38 Ehunaren bilbearen hariak gurutzatzean sortutako hutsuneak betetzen ditu, eta ehunaren korapiloak zein irregulartasunak estaltzen ditu, aglutinatzaile moduan erabiltako olioak zuntzak ez ukitzeko eta ez hondatzeko.

39 Lurretan, hiru osagai daude neurri handi edo txikiagoan: buztin arruntak (silikato aluminiko potasikoa) + kaltzita (kaltzio karbonatoa) eta/edo dolomita (kaltzio eta magnesio karbonatoa) + burdin eta/edo manganeso oxidoak.


40 J. F. L. Mérimée. *De la peinture a l'huile*. Paris, 1830, 242. or. Mériméearentzat oso interesgarriak ziren koloreak lortzeko prozesu kimikoak, eta bidaia ugari egin zituen informazio bila. Bere esperientziaren ondorioz, olio-pinturari buruzko tratatua egin zuen, eta, bertan, prestaketa paristarrak aipatzen zituen: «...kolatu ostean, aitzoz igurtzitako berun karbonatoaren geruza eman; lehortutakoan, apar-harriz leundu eta bigarren geruza eman eta, batzuetan, hirugarrena ere bai...».



11. Francisco de Goya (1746-1828)
Martín Zapaterren erretratu, 1797
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Atzealde berdearen zeharkako ebakidura
 1. Prestaketa: lur gorria, kuartzoa, albaialdea, dolomita. 65-80 μm .
 2. Inprimaketa: albaialdea, dolomita, okre horia, lur gorriaren trazak eta igeltsua. 50-80 μm .
 3. Kapa piktoriko berdea: lur berdea, albaialdea, hezurren beltza. 10 μm . 280x-an hartutako irudia.



12. Francisco de Goya (1746-1828)
Leandro Fernández de Moratínen erretratu, 1799
 San Fernandoko Arte Ederren Erret Akademia, Madril
 Prestaketaren zeharkako ebakidura. Kuartzoaren ale zeharrargi lodiak ikusten dira



13. Francisco de Goya (1746-1828)
Moratín poetaren erretratu, 1824
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Atzealde berdearen zeharkako ebakidura
 1. Prestaketa: albaialdea, okre horia, lur gorria, hematiteak, kuartzoa eta minioko trazak. 110 μm .
 2. Inprimaketa: albaialdea. 25-30 μm .
 3. Kapa piktoriko arrea: albaialdea, dolomita, okre horia, hezurren beltza eta lur gorriko trazak. 10-20 μm .
 4. Kapa piktoriko berdea: lur berdea, albaialdea, hori argia (Napoli horia), hezurren beltza. 10-30 μm .

Prestakina ezohikoa denez eta erregulartasunez emanda dagoenez, Bordeleko kolore-tratulariren batek merkataritzaren arloari begira⁴¹ prestatutako mihisea erabili zuen. Izan ere, Moratínek⁴² Juan Antonio Melóni ekainaren 27an idatzi zion gutunari esker dakigu Goya ez zela iritsi margolanak prestatzeko lan neketsurako baldintza egokienetan: «Goya gor, zahar eta ahul iritsi zen, frantsesez txintik ere ez zekiela eta zerbitzaririk gabe (inork baino gehiago behar bazuen ere)».

Edonola ere, pintura-geruzetan argi eta garbi antzematen dira artistaren eskua eta nahasketak, urteen joan-etorrian aldaezinak direlako. Berak emandakoak mehe-meheak dira, eta, oro har, bat baino ez du ematen. Sarritan, gainera, prestakinaz jokatzeari desagertzen da, eta gainazaleko zenbait gunetan dago ikusgai. Lodiera oso antzekoa da, 20-30 mikrometrokoa, alegia, argitasun handiko gunetan eta arropetako zenbait xehetasunetan izan ezik, bertan 125 µm-koa izan daiteke-eta.

Teknika soilean, ordea, badago salbuespenik, Moratínen atzealdean, hain zuzen ere [13. ir.]. Bertan, honako osagai hauek dituen azpigeruza arrea azaltzen da: burdin lur arreak, okre horia, animalia-beltza, berun-zuria eta lur gorriaren trazak. Geruza hori erretratuaren atzealdeko beste osagai bat estaltzeko erabili zuen, arrazoiren batengatik ezkutatzeko erabakia hartu zuenean. Atzealde horretarako aukeratzen dituen pigmentuen –lur berdearen, Napoliko horiaren, hezurren beltzaren eta berun-zuriaren– nahasketak beharrezko tonu ertaina sortzen du. Horiek horrela, Moratínen irudia urrundu egiten da eta bolumen gehiago hartzen du. Hori dela eta, hirugarren dimentsioa irudikatzen du planoan.

Moratínen⁴³ esanetan «ondo baino hobeto margotzen duen eta margotutako ezer inoiz zuzentzen ez duen» artistaren iaioitasunari esker, «Inarco»⁴⁴ jainkotiarra eta «sudurluze ikaragarria» enkarguaren loturetatik aske igaro dira etorkizunera. Hala ere, horrek ez du esan nahi euren margolanak hain landuak izan ez direnik, dokumentu erradiografikoek egiaztatu ahal izan duten bezala.

Amaitzeko, bi margolanak adiskideen erretratuen adibide zoragarriak direla esan behar dugu. Bertan, ez da ezer ordaintzen, eta margolaria dakien modu onenean saritzen ahalegintzen da, bere pintzelen bidez, alegia. Izan ere, bere gutun batean adierazitakoaren isla da: «Nik ez dut ospe gehiago nahi, adiskideei gustua ematea, besterik ez»⁴⁵.

41 Interesgarria izango litzateke egiaztatzea Bordelen margotutako *Galos* eta *Pio de Molina* erretratuen prestaketa berbera bada, neurri eta teknika berekoak izanda.

42 Fernández de Moratín 1973, 586. or., 302. gutuna.

43 Ibid., 629-630. or., 338. gutuna, Juan Antonio Melónentzako, 1825eko ekainaren 28koa.

44 Inarco Celenio Moratínek Erromako Arkadiarren Akademian sartzean hartu zuen ezizena da. Zenbait aldagai ditu: «Inarco Celenio Poeta Arcade» eta «Inarco Celenio Poeta Arcade y férvido». Izan ere, horrelaxe sinatu zituen Juan Antonio Melón lagunari Italiatik bidali zizkion zenbait gutun.

45 Goya 1982, 237. or., 142. gutuna.

BIBLIOGRAFIA

Andioc 1998

René Andioc. «Sobre Moratín y Goya», *Goya y Moratín : en Burdeos, 1824-1828*. [Erak. kat.]. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao ; Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa, 1998, 9.-36. or.

Ansón 1992

Arturo Ansón Navarro. «Retrato de Martín Zapater», *Goya*. [Erak. kat., Sevilla, Pabellón de Aragón, Exposición Universal]. Zaragoza : Pabellón de Aragón 92, 1992, 216.-223. or.

Arias Anglés 1998

Enrique Arias Anglés. «¿Bayeu contra Goya o viceversa?», *I Congreso Internacional de Pintura Española del Siglo XVIII : 15 a 18 de abril 1998, Marbella*. Marbella : Museo del Grabado Español Contemporáneo, 1998, 451.-460. or.

Baticle 1995

Jeannine Baticle. *Goya*. Barcelona : Crítica, 1995.

Bayeu y Subías 1996

Manuel Bayeu y Subías. *Cartas de Fray Manuel Bayeu a Martín Zapater : fondo documental del Museo del Prado*. José Ignacio Calvo Ruata (arg.). Zaragoza : Institución «Fernando el Católico» ; Madrid : Museo del Prado, 1996.

Desparmet Fitz-Gerald 1928-1950

Xavière Desparmet Fitz-Gerald. *L'oeuvre peint de Goya : catalogue raisonné*. 2 libk. Paris : F. de Nobele, 1928-1950.

Fernández de Moratín 1968

Leandro Fernández de Moratín. *Diario : (mayo 1780- marzo 1808)*. René y Mireille Andioc (arg.). Madrid : Castalia, 1968.

Fernández de Moratín 1973

Leandro Fernández de Moratín. *Epistolario*. René Andioc (arg., hitz. eta oharrak). Madrid : Castalia, 1973.

Goya 1981

Francisco de Goya. *Diplomatario*. Angel Canellas López (arg.). Zaragoza : Institución Fernando el Católico, 1981.

Goya 1982

Francisco de Goya. *Cartas a Martín Zapater*. Mercedes Agueda y Xavier de Salas (arg.). Madrid : Turner, 1982.

Jovellanos 1988

Gaspar Melchor de Jovellanos. *Obras completas*. José Miguel Caso González (arg., hitz. eta oharrak), 4. libk. Oviedo : Instituto Feijoo de Estudios del Siglo XVIII, 1988.

Mayer 1925

August Liebmann Mayer. *Francisco de Goya*. Manuel Sánchez Sarto (itz.). Barcelona ; Buenos Aires : Labor, 1925.

Ona González 1997

José Luis Ona González. *Goya y su familia en Zaragoza : nuevas noticias biográficas*. Zaragoza : Instituto «Fernando el Católico», 1997.

Piquero/González de Amezúa 1996

M^a Ángeles Blanca Piquero López ; Mercedes González de Amezúa y del Pino. *Los Goyas de la Academia : Museo de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando*. Barcelona : Lunwerg ; Madrid : Sociedad Estatal Goya 96, 1996.

Rodríguez Torres 1995

María Teresa Rodríguez Torres. «Retrato de M^a Luisa de Parma : un cuadro de Goya postergado y otras observaciones sobre el pintor», *Urtekaria 1994 : asterlanak, albistak = Anuario 1994 : estudios, crónicas*. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1995, 43-72. or.

Zaragoza 1996

Realidad e imagen, Goya 1746-1828. [Erak. kat., Zaragoza, Museo de Zaragoza]. Madrid : Electa España, 1996.